

## Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %3,5 hazi ziren 2007ko hirugarren hiruhilekoan

**Merkataritza espezializatuko salmentek urte arteko %4ko hazkundera izan zuten eta ez-espezializatukoek %2,6koa**

Eustatek emandako datuen arabera, 2007ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %3,5 igo ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko berdinarekin alderatuta. Hazkunde nominal hori, prezioen eragina kenduta, %2,2ko urte arteko bilakaera positiboa izan zen, balio errealean.

### Urte arteko hazkunde-tasa errealak. Euskal AE

| Urtea | Hiruhilekoa | Txikizkakoa | Espezializatua | Ez-espezializ. |
|-------|-------------|-------------|----------------|----------------|
| 2005  | III         | 1,7         | 2,7            | -0,3           |
|       | IV          | 0,4         | 0,4            | 0,3            |
| 2006  | I           | 4,7         | 7,1            | -0,5           |
|       | II          | 2,2         | 4,0            | -1,6           |
|       | III         | 4,4         | 7,2            | -1,2           |
|       | IV          | 0,4         | 1,5            | -1,7           |
| 2007  | I           | 2,9         | 3,2            | 2,2            |
|       | II          | 2,2         | 3,3            | -0,2           |
|       | III         | 2,2         | 2,9            | 0,6            |

Iturria: Eustat.

Txikizkako merkataritzaren (espezializatuaren) salmenta nominalak %4,0 handitu ziren 2007ko hirugarren hiruhilekoan, 2006ko aldi beraren aldean. Gehikuntza nominal hori, prezioen bilakaera kontuan hartuta, %2,9koa dugu, kopuru errealean.

Balio nominaletan, txikizkako merkataritza ez-espezializatua % 2,6 hazi zen urteko hirugarren hiruhileko horretan. Hala ere, urte arteko tasa errealaren aldaketa %0,6koa izan zen, 2006ko hiruhileko berdinarekin alderatuta.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko hazkunde-tasarik handiena "bestelako kontsumo gaiak" (kirolak, jostailuak, optikak eta liburu-dendak, besteren artean) sektorean izan zen: %7,3ko hazkunde nominala, %6,2koa balio errealean. Pertsonak hornitzeko ekipamenduko ondasunek hazkunde azpimarragarria izan dute, %5,1 termino nominaletan. Termino errealean tasa positiboa da, baita ere, %4,6. Jateko produktuen salmentak %1,9 hazi ziren uneko euroetan; %1,4ko atzerakada izan zuten balio errealean. Etxeko ekipamenduan %0,5eko jaitsiera izan da, %-2,6 termino errealean.

Lurralde historikoka, 2007ko hirugarren hiruhileko horretako txikizkako sektorearen salmenten hazkunderik handiena Gipuzkoan izan zen, %3,8ko urte arteko igoerarekin: txikizkako merkataritza espezializatuaren salmentak %4,8 igo ziren eta %2,0 ez-espezializatuarenak.

Arabak bitarteko bilakaera izan zuen %3,4ko hazkundearekin: %4,4 igo ziren merkataritza espezializatuaren salmentak, eta %1,5 ez-espezializatuarenak.

Lurraldeka, txikizkako merkataritzako urte arteko hazkunderik txikiena Bizkaian (%3,3) izan zen: %3,4ko hazkundea izan zuen txikizkako merkataritza espezializatuak, eta %3,2koa ez-espezializatuak, biak ere urte arteko aldakuntza nominaleko balioetan.

2007ko hirugarren hiruhilekoan merkataritza sektoreko enpleguak izan zuen hazkundea %1,8koa izan zen eta lurraldeka honakoak izan ziren datuak: Araban %3,2 igo da, Bizkaian %2,0 eta Gipuzkoan %0,9. Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko hazkundea %1,5 izan zen hiru lurraldeen multzorako; %2,1 Gipuzkoan, %1,2 Bizkaian eta %1,1 Araban.

---

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**

*Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)*

*Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja*

*Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01*

*Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)*

*Datu-bankua: [www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp](http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp)*